

EBAZPENA, 2023KO MAIATZAREN 22KOA, TEKNOLOGIAREN ETA IKASKUNTZA AURRERATUEN ZUZENDARIARENA. GAIA: ZER DIRU-HORDINURA EGONGO DIREN IKASTETXE PUBLIKOENTZAT ETA UDAL TITULARTASUNEN IKASTETXEENTZAT, 2023-24 IKASTURTEAN LANBIDE-HEZIKETAKO IRAKASLEAK PRESTATZEKO JARDUERAK ANTOLATZEKO.

Lanbide Heziketako Sailburuordetza jakitun da hezkuntza-prestakuntza eta -berrikuntza laneko testuinguruarekin lotuta daudela ikastetxeetan eta testuinguru horrek erraztu egiten duela profesionalak zuhur eta kritikoak izatea eta euren jardun-arloa ikertzeko gogoia izatea. Horregatik, Lanbide Heziketako irakasleen prestakuntza-jarduerak sustatu nahi ditu ikastetxe publikoetan eta udal titulartasunekoetan, irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko ikasleekiko jardunari eta ikastetxeen ildo pedagogikoari dagokienez.

Bestalde, otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari esleitzen dio, besteak beste, Lanbide Heziketako irakasleentzako etengabeko prestakuntza-planak diseinatu, aplikatu eta gauzatzea, barnean hartuta eguneratzea eta espezializatzea.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legeak 31. artikuluan ezartzen du lanbide-heziketan berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatzeko, ezinbestekoa izango dela irakasleak prestatzea, ikasgela barruan lantzeko metodologia aktibo berriak ikasi eta gara ditzaten eta eduki profesional espezifikoak berengana ditzaten, irakasle horiek ingurune konplexuetan aritzeko dituzten konpetentziak areagotzeko. Aurreko paragrafoan adierazitakoa betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren arloan eskumena duen sailak irakasleentzako prestakuntza-programak eratuko ditu, eta, horietan, aurreko paragrafoan zehaztutako arloei emango zaie lehentasuna, baina baita teknologikoki oso aurreratuak diren inguruneetan aurrera egin ahal izateko ekintzak sustatzeari ere.

Bada funtsezko tresna bat Lanbide Heziketako irakasleen prestakuntza epe ertainean planifikatzeko: ikastetxe bakoitzeko irakasleak prestatzeko plana. Plan horrek prestakuntza-proposamenak izan behar ditu irakasleek Lanbide Heziketako ongi funtzionatzeko prestakuntza dutela bermatzeko, eta bestalde, irakasleek beren jardunean sentitu eta egindako eskarien arabera prestakuntza eskaintzeko beharrezko bideak ireki behar ditu.

Ikastetxeko irakasleen Prestakuntza Plana irakasle horien prestakuntza-beharretan oinarritu behar da, eta kontuan hartu behar ditu honako hauek: ikastetxeko plan estrategikoaren lehentasunezko helburu eta jarduerak, ikastetxeak eskaintzen duen prestakuntza eta irakasleen ezaugarriak. Irakasleekin batera sistematizatu eta egin behar da prestakuntza-beharren detekzioa, Lanbide Heziketako irakasleak prestatzeko planean heldu beharreko prestakuntza-ekintzak identifikatzeko eta horiek ikastetxearen helburuen eta antolamenduaren arabera ordenatzeko eta programatzeko. Ordena eta programazio horretatik etorriko da irakasleen prestakuntza-ekintzen urteko planifikazioa eta, ondorioz, dirulaguntzen deialdi honetan hornidura ekonomikoa eskatu duen prestakuntza-ekintzak finkatuta egon behar dira 2023-24 ikasturterako ikastetxeak egindako planifikazioan.

Bestalde, Lanbide Heziketako VI. Euskal Planak hainbat helburu eta jardueraildo nagusi ezartzen ditu ardatz estrategiko hauen barruan: Teknologia, digitalizazioa eta sistema adimendunak; Berrikuntza estrategikoa eta eraldaketa disruptiboa; Adimenaren kudeaketa 5.0 Lanbide Heziketako ikastetxeetan; Bioteknologia, birsorkuntza eta ongizatea; Giza garapena; LHko Ikastetxe 5.0-ak.

Gauzak horrela, lanbide-heziketako ikastetxeetako pertsonen gaikuntzarako prestakuntza aurreratua, modernoa, disruptiboa, zehatza eta pertsonalizatua behar da, pertsona horien gaitasun teknikoak eta trebezia pedagogikoak maila gorenean mantenduko direla bermatzeko, eta 4.0 industriaren eta garapen teknologiko berrien munduan sor daitezkeen beharretarako erantzun azkar eta malguak garatzeko gai izan behar dira nahitaez.

Jarduera-esparru horretan, 2023-24 ikasturterako digitalizazioaren eta jasangarritasunaren esparruetara bideratutako prestakuntza-jarduerak sustatuko dira bereziki. Era berean, lanbide-orientazioan honako hauek ere sustatuko dira: prestakuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan metodologia aktibo-kolaboratzaileak ezartzea, STEAM kultura, prozesu horietan teknologia aurreratuak eta edozein espezialitatetako irakasleen ekintzailtza-kultura indartuko duten jarduerak erabiltzea, gaitasun sortzailea, berrikuntza eta pentsamendu eraikitzailea ere bai. Era berean, lehenetsuna izango dute genero-ikuspegia txertatzeko jarduerak. Beraz, gai horietakoren batean Lanbide Heziketako irakasleen gaitasunak hobetzeko lagungarriak diren prestakuntza-ekintzek ponderazio handiagoa izango dute eskabideen lehia baloratzean.

Euskal Hezkuntza Sistemako lanbide-heziketa bultzatzeko plan estrategikoaren baitan planteatzen da deialdi hau eta Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak finantzatzen du.

Hona zer baldintza bete behar diren 2023-24 ikasturtean Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetako eta udal titulartasuneko ikastetxeetako irakasleak prestatzeko jarduerak diruz hornitzea lortzeko:

1.- Prestakuntza-jardueren esparru orokorra.

1.- Ikastetxe bakoitzeko Lanbide Heziketako irakasleak prestatzeko planak finkatzen dituen beharren arabera izango dira deialdi honen barruko prestakuntza-jarduerak, eta urteko plangintzaren barruan egongo dira. Gainera, ikastetxearen lehenetsunezko helburu eta jarduerekin lotuta egongo dira.

2.- Ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza arduratuko da aukeratzeaz Lanbide Heziketako irakasleak prestatzeko planaren barruko zer jarduera aurkeztuko dituen ikastetxeak deialdi honen bitartez finantzatzeko.

2.- Prestakuntza-jarduerak bete beharreko baldintzak.

1.- Ikastetxe bakoitzeko Lanbide Heziketako irakasleen lana hobetzen eta horiek alde profesionaletik garatzen lagunduko dute prestakuntza-jarduerak, eta ikastetxe bakoitzak 2023-24 ikasturtean eskaintzen duen prestakuntzarekin lotuta egongo dira.

2.- Zuzendaritza-taldeak izango du prestakuntza-jarduerak atontzeko ardura, eta, horretarako, jardueretan parte hartzen duten irakasleek edo horiek izendatutako

batzorde batek ematen dizkion datuak erabiliko ditu, edo, bestela, bere kabuz jardungo du.

3.- Ikastetxe bakoitzeko irakasleen interes eta beharren arabera izango dira prestakuntza-jarduerak, eta horien garapen profesionala eta irakaskuntzaren hobekuntza izango dituzte helburu. Ildo horretan, irakasleek eurek zehaztuko dituzte euren beharrak, eta ikastetxearen barruan dagozkion organoek onartu egingo dituzte.

4.- 2023-24 ikasturtean ikastetxeak eskainitako prestakuntzarekin lotuta egongo dira.

5.- Finantzaketa eskatzen duen ikastetxeko irakasleek parte hartuko dute prestakuntza-jardueretan. Era berean, prestakuntza-jardura partekatuak (ikastetxe artekoak) egin ahalko dituzte honako baldintzaren bat betetzen duten ikastetxeek:

- Lurralde historiko berdineko ikastetxeak izatea.
- Lanbide-arlo bereko heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeak izatea.
- Ikastetxeek proposatutako prestakuntza-jarduerak zeharkakoak izatea.

6.- Ikastetxe bakoitzak eskari bakarra aurkeztuko du, eta hor ordenatu beharko ditu prestakuntza-ekintzak lehentasun-ordenaren arabera.

Baldin eta 9.4 artikulua araberan onartutako prestakuntza-jarduerari emandako kopuru osoak eskuragarri dagoen kreditua gainditzen bada, ikastetxe bakoitzean gehieneko jardura kopuru bat lagunduko da diruz, ematen duen prestakuntza-ziklo kopuruaren arabera. Gehieneko kopuru hori tarte hauetan ezarritakoaren arabera zehaztuko da:

- | | |
|--|-------------------------|
| - 11 prestakuntza-ziklo baino gutxiago | 8 prestakuntza-jardura |
| - 11 eta 15 prestakuntza-ziklo artean | 10 prestakuntza-jardura |
| - 16 eta 20 prestakuntza-ziklo artean | 12 prestakuntza-jardura |
| - 20 prestakuntza-ziklo baino gehiago | 14 prestakuntza-jardura |

Kopuru horretan ez dira kontuan hartuko ikastetxe arteko jarduerak.

Jardura bererako bi talde eratzen direnean, bi prestakuntza-jardura balira bezala hartuko dira.

7.- Prestakuntza-jardueretan gutxienez 8 irakasle hartu behar dute parte, oro har. Ikastetxe bat kopuru horretara iristen ez bada, ikastetxe arteko jarduerak proposatu beharko ditu.

Lurralde historikoko 2 ikastetxetan bakarrik ezarritako prestakuntza-ziklo bati dagokion jardura bada edo EAEn ezarri berria bada eta hau bada ematen duen lehenengo edo bigarren urtea, gutxienez 4 irakaslerekin hautatu ahal izango dira jarduerak.

8.- Prestakuntza-jardura bakoitzak gutxienez 10 orduko iraupena izango du eta gehienez 35ekoa, 11. puntu jasota dauden atzerriko hizkuntzan emango diren hizkuntza-prestakuntzako jarduerak izan ezik. Prestakuntzaren orduak sinkronoak edo asinkronoak izan daitezke:

Ordu sinkronoetan emailea eta prestakuntzako partaidea une berean arituko dira lanean, eta aurrez aurreko edo lineako prestakuntza izan daiteke.

Ordu asinkronoetan emailearen eta ikastaroko partaidearen arteko elkarreragina une eta gune desberdinetan egiten da.

9.- Nahitaezkoa izango da prestakuntza-jarduerak deialdiaren aurreko bi ikasturteetan diru-hornidurarik eskuratu ez izana xede berdinerako, betiere, ikastetxe berean izan badira eta izenburu edo eduki bera bazuten. Alde horretatik, zenbait urtetarako jarduerak (ikasmaila bat baino gehiago irauten dutenak) izendatzeko, mailak erabili ahalko dira; gehienez, hiru.

Aurreikuspen hori ez da ezarriko dirulaguntza eman ondoren uko egin duten ikastetxeetan.

10.- Prestakuntza-jarduera finantzatzeko, aurreikusitako irakasle partaideen behin betiko zerrendetan izena emandako % 80k edo gehiagok gainditu beharko dute jarduera.

Irizpide hori ez da ezarriko eskabidearen formularioko (A formularioa) prestakuntza-ekintzen zerrendan eta prestakuntza-ekintzen fitxan (A1 eranskina) aurreikusitako kide kopuruak edo gehiagok gainditzeko badute prestakuntza-jarduera

Ehuneko hori ezarrita zenbaki hamartar bat emanaz gero, behera biribilduko da.

11.- Atzerriko hizkuntzan eskatu daitezke prestakuntza-jarduerak. Horretarako, ikastetxe bereko edo ikastetxe arteko 8 irakaslek osatutako talde bat eratuko da gutxienez, eta irakasleek A2 gaitasun-maila izango dute eta goragoko bat lortu nahiko dute. Prestakuntza-jarduera 100 ordukoa izango da gutxienez, eta ikasturte barruan izango da.

Parte hartzen duten irakasleak Hizkuntza Eskola Ofizialaren azterketara aurkeztuko dira, ikastaroaren xede den maila lortu dutela egiaztatzeko.

Prestakuntza honetako irakasle partaideek HEOko azterketa gainditzeko ez duten bitartean prestakuntza egin den ikasturtean, ezingo dute parte hartu jardueraren ondoko mailetan deialdi honek finantzatu eta atzerriko hizkuntza eskaintzen diren prestakuntza-ekintzetan, maila egiaztatu arte.

3.- Finantza daitezkeen gastuak.

- Ikastetxe eskatzailekoak izan gabe prestakuntzan aditu diren pertsonak edo erakundeak kontratatzearen ondoriozkoak.
- Prestakuntza-jardueren garapenaren ondoriozko ezinbesteko materialak erostea.

4.- Finantzatuko ez diren gastuak.

- Ekipamenduen inbertsioa eta amortizazioa.
- Prestakuntza jasotzen duten irakasleen joan-etorriak.
- Ikastetxearen funtzionamendu-gastu arruntak.
- Lokalak kudeatzeko eta alokatzeko gastuak.
- Prestakuntza emateko beste batzuk: matrikulen ordainketa,

prestakuntzan adituak direnen egonaldiak, etab.

Gehienez 110,00 euro emango da emandako ordu bakoitzeko.

5.- Ikastetxeko antolamendua.

1.- Ikasketaburuaren ardura izango da prestakuntza-jarduerak abian jarraraztea, baita haiek koordinatzea ere, dela zuzenean, dela irakasle bat prestakuntzaren koordinatzaile izendatuta.

Koordinatzaile bat izendatzen badu, aldian-aldian, jardueren bilakaerari buruzko informazioa emango dio hark. Gainera, koordinatzailea zuzendaritza-taldearen bileretara joan ahalko da jarduerekin zerikusia duten gaiak aztertzen direnean.

2.- Koordinatzaileen eskola-orduak egokitu ahalko ditu ikastetxeak, proiektuan betetzen duten eginkizunarekin bateragarriak izan daitezen: bai eskola-orduen kopurua, bai horien banaketa. Horretarako, betiere, dagozkion ikasketei buruzko ikasturte-hasierako zirkularretako arauak beteko ditu, eta aintzat hartuko du ikastetxearen ordutegi-aukera.

3.- Baldin eta jarduerak lanera ez joatera behartzen badituzte irakasleak, ez da jarriko ordezkorik.

6.- Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.

Elektronikoki bidaliko dira eskaerak, dagozkien formularioekin batera, ikastetxe publikoentzako -"[Herri-ikastetxeak / Deialdiak](#)" atariaren bidez.

Eskabideak aurkezteko azken eguna: 2023ko ekainaren 22a, barne.

7.- Aurkeztu beharreko dokumentuak.

- A formularioa: eskabidearen formularioa, dirulaguntza eskatzen den prestakuntza-jardueren zerrenda duena, bakoitzaren oinarrizko informazioarekin.
- Ikastetxearen Prestakuntza Plana
- A1 eranskina: «Prestakuntza-jardueraren fitxaren» eranskina, proposatutako jarduera bakoitzeko.
- A2 eranskina: Ikastetxeko prestakuntza-planarekin batera, A2 eranskin hau entregatuko da, aukeran, balorazio-irizpideen arabera puntuatua izateko.
- A3 eranskina: «Klaustroaren akta» daukan eranskina; bertan, berariaz jasoko da klaustroak prestakuntza-jardueren berri baduela, eta bere gain hartzen dituela jarduera horiek parte-hartzaileengan izan ditzakeen ondorio pertsonalak eta ikastetxearen barne-antolamenduan izan ditzakeenak. Prestakuntza ikastetxe artekoa bada, ikastetxe bakoitzeko eranskin bat aurkeztuko da.
- A4 eranskina: Eskola arteko prestakuntza-jardueretan «Ordezkaritza ematea» jasotzen duen eranskina.

- A5 eranskina: "Ordezkaritza-organo gorenaren akta / Gizarte Kontseilua". Adieraziko du Ordezkaritza Organo Gorena bat datorrela eskaerarekin, baduela proposatzen diren jardueren berri, onartu egiten dituela eta, orobat, hitzematzen duela proiektua aurrera eramateko beharrezko neurriak hartuko dituela eta, onartzen badira, Ikastetxeko Urteko Plangintzan sartuko dituela.

8.- Prestakuntza-jarduerak baloratzeko irizpideak.

1.- Prestakuntza-jarduerak banan-banan baloratuko dira, deialdi honetako eskakizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, eta irizpide hauek kontuan hartuta:

a) Gai orokorrak (gehienez, 2 puntu):

- a.1. Justifikazioa eta xedek: ikastetxeko prestakuntza-planaren arabera, prestakuntza-jardueraren xedek zehaztasunez justifikatu badira: 0,4 puntu.
- a.2. Helburuak: gaitasunen garapen bezala zehaztu diren helburuak eta aurreko puntuan adierazitako xedeetara egokitu badira: 0,3 puntu.
- a.3. Edukiak eta jarduerak: irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko xedek eta formak jardueraren helburuekin zehatz eta koherentziaz zerrendatzen badira: 0,3 puntu.
- a.4. Prestakuntza-ekintzaren ebaluazioa:
Ebaluazio-tresnak adierazten badira (lanak, kontrolak, inkestak...): (0,5 puntu).
Ebaluazio-irizpideak azaltzen badira: (0,5 puntu)

b) Ikastetxeko prestakuntza-plana (gehienez, 3 puntu):

Irakasleek epe ertainean dituzten prestakuntza-beharrak finkatuko ditu Prestakuntza Planak, ikastetxearen helburuen arabera ordenatuta, eta urteko plangintzan egon beharko da.

- b.1. Prestakuntza Planak bi urteko iraupena badu (2022-2024 edo 2023-2025): Puntu bat.
- b.2. Prestakuntza Planak zehazten baditu ikastetxean nola gauzatuko den eta zer eragin izango duen ebaluatzeko erabiliko diren tresnak eta irizpideak: Puntu bat.
- b.3. Prestakuntza-planak hasierako prestakuntza-jarduerak desberdinduta baditu bitarteko edo ordezkotako irakasleentzat: Puntu bat.

c) Lehenetsuneko jarduerak (gehienez 4 puntu)

- c.1. Prestakuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan teknologia aurreratuak erabiltzearekin zerikusia duten jarduerak. Jarduera horiek honako hauei buruzkoak izango dira: digitalizazioa, errealitate birtuala, errealitate areagotua, adimen artifiziala, etab., konektagarritasuna, robotizazioa eta automatizazioa, zibersegurtasuna, datuen azterketa eta jasangarritasunari buruzkoa (eraginkortasun energetikoa, ekonomia jasangarria, 4.0. Osasuna, Biozientziak eta Bioteknologiak,

etab.): 3 puntu.

- c.2. Lanbide-orientazioarekin zerikusia duten jarduerak: Puntu bat.
- c.3. Prestakuntzaren eta ikaskuntzaren arloan elkarlanean aritzeko metodologia aktiboekin zerikusia duten jarduerak: Puntu bat.
- c.4. Lanbide Heziketako maila desberdinetan Steam kulturarekin zerikusia duten jarduerak: Puntu bat.
- c.5. Irakasleen gaitasun sortzailea, berritzailea eta pentsamendu eraikitzailea indartzeko jarduerak: Puntu bat.
- c.6. Irakaskuntzan genero-ikuspegia sartzeko, gizon eta emakumeen berdintasuna sustatzeko eta/edo genero-indarkeria desagerrarazteko jarduerak: Puntu bat.

d) Honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada (gehienez 2 puntu):

- d.1. Ikastetxe arteko prestakuntza-jarduerak: Puntu bat.
- d.2. Ziklo ezarri berria (zikloa ezarri den lehen edo bigarren urtea): Puntu bat.
- d.3. Ziklo berezia (gehienez ere lurralde historiko bereko bi ikastetxetan ezarritako zikloa): Puntu bat.

e) Euskaraz ematekoak diren prestakuntza-jarduerak (2 puntu).

f) Aurrekontua: aurkezten den aurrekontuaren egokitasuna orduko eta tokiko kostu unitarioari dagokionez. Kostu handiagoarekin, puntuazio txikiagoa (gehienez 2 puntu).

9.- Diru-hornidura esleitzeko prozedura.

1.- Puntu gehien lortzen dituzten prestakuntza-jarduerak bakarrik hornituko dira diruz, harik eta deialdi honetarako aurrekontu-kredituak agortzen diren arte edo indarrean dagoen legediaren arabera aurrekontuetan egiten diren eguneratzeetatik ateratzen direnak agortzen diren arte.

2.- Prestakuntza-jarduerak baloratutakoan, ordenatu egingo dira, kontuan hartuta zenbat puntu lortzen dituzten guztira 8. puntuko baremoaren arabera.

3.- Emandako puntuazioan berdinketa egonez gero, lehentasun hau emango da:

- Hasteko, aurreko artikuluko 1.C apartatuan puntuaziorik altuena lortu duten jarduerak;
- Bigarrenik, euskaraz egingo diren jarduerak (1.E.);
- Eta hirugarrenik, eskola arteko jarduerak, eskolakoekin alderatuta (1.D).

4.- Gutxienez honako puntu kopurua lortzen duten prestakuntza-jarduerak bakarrik lagunduko dira diruz: 6 puntu.

10.- Ebazpena.

Ikastetxe interesatuei 2023ko irailaren 8a baino lehen jakinaraziko zaie ebazpena, bitarteko elektronikoak erabilia, "Herri-ikastetxeak / Deialdiak" bidez.

11.- Ikastetxe onuradunen betebeharrak.

1. Finantzatzen diren prestakuntza-jarduerak honakoetan sartzea: ikastetxeak 2023-24 ikasturtean izango duen urteko planean eta ikastetxeak ikasturte horretan izango duen prestakuntza-planean.

2. Konpromisoa hartzea dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzetan egondako aldaketak Hezkuntza Saileko Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaritzari jakinarazteko, eta, hala badagokio, helburu bererako edozein diru-sarrera edo baliabideak lortu izana; horrek berarekin ekarri ahal izango du ebazpena aldatzea, betiere haren onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira.

3. Dagokion jarduerako aktan (D3 eranskina), irakasle taldeak prestatzeko jardueren emaitzak erregistratzea. Behin betiko akta itxia izango da, eta ezingo da aldatu gerora, salbu eta akatsik badago edo zerbait aipatzen ez bada; edonola ere, aldaketak justifikatu egingo dira, dokumentuen bidez. Prestakuntza-jarduera bakoitzeko amaierako akta bakarria aurkeztuko da, eta artikuluko honetako 4. puntuan adierazitako dokumentuetan oinarrituko da.

Amaierako aktan (D3 eranskina) 1. eranskinean dauden partaide guztiak egongo dira, dagokion partaidetzaren %arekin.

4. Prestakuntza-saioetara joango diren pertsonen bertaratze-kontrola egitea, honela:

a) Ordu sinkrono presentzialak: sinaduren kontrol-orrien bidez (D4 eranskina).

b) Ordu ez-presentzial sinkronoak (online): hiru ebidentzia mota hauetako denak eta bakoitza jaso beharko dira

1. Prestakuntza-saio bakoitzaren pantaila-argazkia, parte-hartzaileak bertaratu direla adierazten duena.

2. Saio ez-presentzialen plangintza eta pertsona bakoitzak saio bakoitzean duen bertaratzea (bai edo ez) jasotzen dituen klase-emaileen adierazpena (D6 eranskina).

3. Eta erabilitako plataformak sortuz gero, plataformaren konexioen erregistroa pertsonak, datak eta konexio-denborak identifikatuta.

c) Ordu asinkronoak: prestatzaileak zinpeko adierazpena egin beharko du (D5 eranskina).

5.- Bertaratzearen kontrola egiteko erabilitako dokumentu guztiak ikastetxean 5 urtez gordetzea eta mantentzea, eta Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzaren edo zuzendaritza horren bidez eska ditzaketen organoen esku

jartzea.

6.– Prestakuntza-jarduera bakoitzerako koordinatzaile bat izendatzea. Pertsona hori izango da ikastaroa kudeatzearen arduraduna, eta honako hauek egin beharko ditu, besteak beste:

- a) Artikulu honetako laugarren betebeharrean adierazitako bertaratze-kontrolerako erabilitako erregistroak jasotzea.
- b) Amaierako akta egitea (D3 eranskina).
- c) Amaierako memoria egitea (D2 eranskina), hasierako aurreikuspenarekiko egondako aldaketa guztiekin.

7.– Emandako dirulaguntza justifikatzea 12. artikuluan jasotakoaren arabera.

8.– Dirulaguntza, eman den xederako erabiltzea.

9.– Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoari publizitate egokia ematea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 18.4 artikuluan xedatuaren arabera.

12.- Diru-horniduren erabileraren justifikazioa.

1.– Ikastetxe onuradunek finantzaturako prestakuntza-ekintzak amaitzen ari diren heinean eta, dena dela, 2024ko uztailaren 15a baino lehenago, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte "Herri-ikastetxeak / Deialdiak" atariaren bidez:

- a) Diruz lagundutako jarduera guztien memoria ekonomikoa (AD1 eranskina). Memoria ekonomikoak jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua izan beharko du, honako hauek adierazita: hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, jaulkipen- eta ordainketa-data, aurrekontuarekiko desbideratzeak, eta diruz lagundutako jarduera finantzatzeko jasotako beste zenbait diru-sarreraren xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria. A formularioan eskatu eta onartutakoekin bat ez datozen gastuetan, ebaluazioaren amaierako memorian zergatiak justifikatu beharko dira, baita prestakuntza-jarduera ongi garatzeko gastu horien beharra dagoela ere (D2 eranskina).
- b) Hartu-agirien, fakturen eta, legez onartuta egonda, emandako dirulaguntzari egotz dakioken beste edozein gastu-frogagiriren kopiak.
- c) Prestakuntza-ekintza bakoitzaren amaiera akta (D3 eranskina) behar bezala beteta eta ikastetxeko zuzendariaren sinadurarekin.
- D) Amaierako ebaluazio-memoria. Prestakuntza-jarduera bakoitzaren bilakaera eta emaitzak adieraziko ditu, kuantitatiboki ere adierazita eta aurreikusitako helburuekin alderatuta (D2 eranskina).

13.- Diru-hornidura itzultzeko arrazoiak.

- a) Jardueren jarraipenetik eta ikastetxe onuradunek aurkeztzen dituzten memorienetik (amaierakoarenetik eta ekonomikoarenetik) ondorioztatzea ez direla lortu gutxieneko helburuak.

- b) Finkatutako edozein eginbehar edo eskakizun ez betetzea.

14.- Diru-hornidura txikitzeko arrazoiak.

- a) Baldin eta prestakuntza-jardueretako parte-hartzaileen kopurua % 40tik gora txikiagoa bada eskabideak adierazten duena baino, dirulaguntza emateko baldintzak aldatzen direla joko da, eta ebazpena aldatuko da, orduko eta tokiko kostua esleitutakoa izateko, betiere, parte-hartzaileen kopurua 2.7. puntuak aipatzen duenaren arabera bada.

Ehuneko hori ezarrita zenbaki hamartar bat emanaz gero, behera biribilduko da.

- b) Ikasturtea laburragoa bada dena delakoagatik, horniduraren zenbatekoa proportzioan jaitsiko da. Betiere, ematen den ordu bakoitza 110 euroz hornituko da gehienez.

15.- Irakasleen parte-hartzearen ziurtapena.

1. Ikasturte amaieran, Lurralde Ordezkaritzako Lanbide Heziketako Lurralde Unitateak honako dokumentuak bidaliko dizkio Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzari:

- a) Ikastetxeen zerrenda, jardueren helburuak zenbateraino lortzen diren adierazita.
- b) Prestakuntza-jarduera bakoitzeko parte-hartzaileen zerrenda. Zerrendako kide bakoitzak guztira egiten dituen orduak eta bertaratze-ehunekoa adieraziko ditu.
- c) Irakasleek prestakuntza-jarduera bakoitzean duten parte-hartzea ontzat ematen bada, Hezkuntza Sailak irakasleentzat dituen berrikuntza- eta prestakuntza-jardueren datu-basean erregistratuko da, parte-hartzaileen bertaratzeaz jasotako informazioaren arabera.
- d) Prestakuntza-jarduera gaindituztat erregistratuko bada, bertaratzea % 80tik gorakoa izango da.
- e) Aipatutako datu-basearen bidez, Berrikuntza eta Prestakuntza Jardueren Ziurtagiria eskuratu ahalko dute interesdunek.

16.- Datu pertsonalen babesa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: Laguntza eta dirulaguntzak Lanbide Heziketako ikastetxeentzat eta entitate laguntzaileentzat.

Arduraduna:

Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Xedea:

Laguntza ekonomikoen eskaerak izapidetzea, parte-hartzaileak eta/edo

interesdunak identifikatuta. Entitate laguntzaileentzako dirulaguntzak.

Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean egin behar den eginkizun bat betetzeko.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

- Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.
- Ekonomia eta Ogasun Saila.

Eskubideak:

eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Gure web-orrialdean begira dezakezu datu-babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza.

Araudia:

- Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 22a

Sin.: Rikardo Lamadrid Intxaurreaga
Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria